



**2017KO EKAINAREN 16KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hamaseian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2017ko ekainaren 2an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 53 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, LAUROGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA BI ZENTIMO (90.388,02 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-


Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 16-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2017ko maiatzaren 26an, heriotzagarik.
- 11-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea 2017ko maiatzaren 16tik aurrera, astean bi ordutik 4 ordura, pertsona honek laguntza gehiago behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24 izango da.
- 16-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, 2017ko ekainaren 12tik aurrera, astean 2 ordutik astean 4 ordura, pertsona honek arreta gehiago behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 111 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza ematea urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



- 103 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentzeko gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 700 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 80,48 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %87 da.
- 135 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 670 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentzeko gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 57,35 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %62 da.
- 09-01-018 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 83,25 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairuko gastuetzako hilean 225 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %90da.
- 13-01-11 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentzeko gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentzeko gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 14-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 15-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125€ ematea urtarriletik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 46,25 € ematea urtarriletik maiatzera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- 16-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea urtarriletik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 46,25 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- 16-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea urtarriletik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 46,25 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- 615 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 15-01-014 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 60,13 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %65 da.



LAZKAOKO UDALA

- 16-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea urtarriletik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 46,25 € ematea urtarriletik maiatzera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- 17-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentzeko gastuetarako hilean 84,18 €ko diru laguntza alta ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %91 da
- 16-01-016 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 67,53 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 182,5 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %73a da
- 17-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentzeko gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntzan alta ematea apiriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 16-01-015 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125 € ematea urtarriletik abendura eta mantentze gastuetarako hilean 46,25 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- 16-01-017 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 220,5 € ematea urtarriletik apirilera eta mantentze gastuetarako hilean 83,25 € ematea urtarriletik martxora. Ematen zaiona eskatutakoaren %88a da.

- Karitas elkarte.-

1. Zailtasunak dituzten hurrei laguntza ekonomikoa emateko 500€ko diru laguntza ematea.
2. Gizarteratzeko prozesuan pertsona bati laguntzeko 1.620 €ko diru laguntza ematea.

- Orobione jubilatatu eta pentsiodunen elkarte.-

2017rako aurreikusitako diru laguntzaren %50 ematea. Ekintzen garapenerako 3.514,00€ eta oinarritzko egituren funtzionamendurako 1.250,00€.

- Gizakia Helburura joateko garraiorako diru laguntza.-

- 17-14-01 zbk.dun esped.: maiatzean 73,25€ko diru laguntza ematea (Usurbilgo zentrutik joaten zen) eta ekainetik aurrea, Lazkaotik joango denez, hilean 119,75€ko diru laguntza ematea.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA.-

Ibilgailuen aseguruak kontratatzeko espediente.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, ibilgailuen aseguruak kontratatzekeo kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

LAZKAOKO
UDALA



Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak ibilgailuen aseguruak kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

San Juan egunez (ekainaren 24an) San Juan Txiki erromeria festa egiteko Joxe Ramon Sala Elizondori 500€ aurreratzea erabakitzen du Tokiko Gobernu batzarrak aho batez.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) kirol zerbitzuen kontratazio espedientearen inguruan galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio bi aurkeztutako bi proposamenen artean GKT, Juan Ignacio Moyua, dela puntu gehien atera dituen, bai dokumentazio teknikoak bai proposamen ekonomikoan.

Beste alde batetik eta etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazio espedienteari dagokionean, esaten du alkateak, hiru proposamen aurkeztu direla eta hemen dokumentazio teknikoan puntu gehien atera dituen EULEN dela, proposamen ekonomikoan CLECE, eta guztira puntu gehien atera dituen EULEN izan dela.

Azkenik, esaten du alkateak, San Prudentzioko berrurbanizazio obrak egiteko kontratazio espedientearen onarpena eta lehiaketa deialdia berehala egingo dela alkatezaren ebazpen bidez.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

